

axular news



Euskara jalgi hadi kanpora...

2006ko ekaina 8. zenb

DBH 3ko IKASLEEK EGINDAKO URTEKARIA



Axular.net



Kudeaketa Jardun Onenaren Saria 2005



Aurkibidea

- 2-3 IKASTOLA 05-06
- 4 KALITATEA
- 5 EUSKAL CURRICULUMA
- 6 PRAKTIKA ONEN SARIA
- 7 KIROLA IKASTOLAN
- 8-9 HAURRALDE
- 10 AXULAR MUSIKA ESKOLA
- 11 SEXU HEZIKETA
- 12 KULTUR TALDEA
- 13 EUSKARAZ BIZI
- 14-15 MATIA FUNDAZIOA
- 16 IKASLE-TRUKAKETA
- 17 FUTUROSCOPE
- 18 IKASLE OHIEN TXOKOA
- 19 DENBORAPASAK
- 20 BESTE ALBISTE BATZUK

“Teknologia berrien aplikazioari ekin diogu”



Jesus Etxaniz Axular Lizeoko zuzendaria.

Jesus Etxanizek, Axular Lizeoko zuzendariak, 2005-06. ikasturteko helburuak eta egitasmoak azaldu dizkigu.

A.N.: Azalduko al zeniguke honi buruz zerbait gehiago?

J.E.: Iaz, hasiera batean Batxilergoko trukaketa Ingalaterra edo ingelesa irakasten den herrialde batean egitea pentsatua zegoen, baina azkeneko momentuan ezin izan zen gauzatu. Beraz, Italiara egin behar izan genuen bidaia. Trukaketa egiteko Axular Lizeoaren Batxilergo linguistiko berdina edo antzekoa zeukan ikastetxe bat nahi genuen eta zorionez, ikastetxe egokia aukeratu genuen. Ikasturte honetarako Alemaniako ikastetxe batekin mantendu dugu harremana baina *trukaketa fisikoa* ezin izan dugu burutu, bai ordea, *trukaketa birtuala*, Lizeoko ikasleek, trukaketa egin behar zuten horiek, Alemaniako ikasleekin jarraitzen dute harremana mantentzen posta elektronikoz, hain zuzen ere. DBH-koa berriz, Frantziara, Lyon-era izango da, nahiz eta hasiera batean San Juan de Luz-era pentsatua zegoen. Frantsesa indartzea daukagu helburu eta trukaketaz gain beste ekintzaren bat antolatuta dago, Futuroscoperako bidaia, esaterako.

Axular News.: Esango zeniguke zeintzuk diren 05/06 ikasturteko Axular Lizeoak dituen helburuak?

Jesus Etxaniz.: Bai noski. Ikasturte honek erronka asko ditu. Ikasleen trukaketa Europako beste herrialde batzuetara, teknologia berrien aplikazioa, Euskal Currikuluma eta LOE lege berria, ingelesaren erabilera Batxilergoan, Euskaraz Bizi proiektua, HIZPRO hizkuntza proiektua, FQM kaligata plana, instalazioen berrikuntza, kooperatibismoa eta beste hainbat gauza.

A.N.: Aurtengo ikasle trukaketak zein mailatan eta nora egingo dira?

J.E.: Axularren, bi mailatan egiten dira trukaketak; lehengo DBH 3. mailan Frantziara, frantsesa lantzeko eta bestea, urte batzuk aurrerago, Batxilergoko 1.mailan, ingelesa lantzeko beste helburuen artean.

A.N.: Azalduko al zenizkiguke teknologia berrien aplikazioak?

J.E.: Bai, gustura. Axular Lizeoan teknologia berrien aplikazioari ekin diogu, honetarako WIT formakuntza eta irakasleei Informatikako klaseak ematen ari zaizkie. Ordenagailuak ere erosiko dira eta web orrialdeak berritu. Esan beharra dago sari bat eman zigutela honi buruz. Urtarrilaren 18an prentsaurreko bat eduki genuen Koldo Mitxelena Axular.org web orrialdeari buruz.

A.N.: Euskal kurrikulumari zerbait esan diezagukezu?

J.E.: Oraingoz, ez daukagu argi zer egingo dugun. Beraz, aztertu bakarrik egingo dugu. LOE lege berriak ere aztertuko digu.



Jesus Etxaniz

A.N.: Zer esan zenezake Euskaraz Bizi proiektuari buruz?

J.E.: Euskaraz Bizi, denok dakigunez, urtero egiten dugun euskararen erabilera hobetzeko eginkizuna da. Aurten ere, Euskaraz Bizik bere programa izando du. Euskaraz Bizi proiektuarekin lortu nahi dena, euskara ikastolatik kanpoko beste ekintza batzuetan erabiltzea. HIZPRO hizkuntza proiektua loturik dago. Egitasmo horren bidez Axular Lizeoan lantzen diren hizkuntza desberdinen egoera ikertu nahi dugu, ondorioak atera eta egoera hobetzeko eman behar ditugun pausoak argi izan.

A.N.: Zerbait esan diezagukezu FQM kaliate planari buruz?

J.E.: Aurreko urtean zilarrezko Qaren erronkari erantzun ondoren, FQM-rako aukeratuak izan ginen, baina oraingoan, urrezko Q-a lortu nahi dugu. Honetarako, FQM-ko espezialistek ikastolako ekintzak eta instalazioak hobetzeko hainbat aholku eman zizkiguten. Beraz, 2005-06. ikasturteko helburuetako bat beraiek emandako aholkuak lantzea da. Horrela, zortea badugu, berriz ere aukeratuak izango gara sari garrantzitsu honetarako.

A.N.: Jakin dugunez, kurtso honen hasieran Finlandia-ra joan zinen. Esango al zeniguke bidaia honen zergatia?

J.E.: Bai. Finlandian, hainbat eskolalara joan ginen hango ekintzak eta instalazioak ikusteko. Finlandian, hainbat ideia berri eta erakargarri aurkitu genituen. Dakigunez, Finlandian irakaskuntza oso ongi dago antolatuta eta hango esperientziez baliatuz pentsatu genuen interesgarria izango zela Lizeoan ezartzea haietako baten bat.

A.N.: Amaitzeko, Axularreko instalazioei buruz hitz egitera gustatuko litzaiguke. Esango al zeniguke zer nolako aldaketak egingo diren?

J.E.: Ikastolako instalazioetan berrikuntza asko egingo dira kurtso honetan zehar.. Dagoeneko, bi egin ditugu, frontoi berriko ezker aldean estalki bat jarri dugu eta areto nagusian pantaila lekuz aldatu dugu. Aldaketa hauetaz aparte, beste hainbat berrikuntza egingo ditugu Axular Lizeoan. Aldaketa hauetan, ordenagailu berrien ezarketa eta aldageletako berrikuntzak izango dira. Ikasleek soinketarako erabiltzen dituzten aldagelak urte pare batean berrikuntza izango dira.

Jesús Etxaniz, el director de la ikastola Axular Lizeoa, nos habla de los objetivos de este curso 05/06 tales como la renovación de las instalaciones escolares o los programas de inglés en bachiller y de Euskaraz Bizi. La aplicación de nuevas tecnologías; la compra de nuevos ordenadores, la formación WIT a los profesores, la renovación de las páginas web... será otro de estos objetivos. Para finalizar, nos ha dado una amplia información sobre el intercambio entre alumnos de distintos países.

Jesus Etxaniz, the headmaster of Axular Lizeoa, spoke to us about the objectives for the 05/06 academic year, such as the English programme in bachiller and the Euskaraz Bizi programme. The application of new technologies will also be important: new computers will be bought, WIT training for teachers and improvement of Axular web pages... Finally, Jesus Etxaniz explained all about the exchange between students of different countries.

Jesús Etxaniz, le principal de l'ikastola Axular Lizeoa, nous a parlé des objectifs de l'année scolaire 05/06: la remise à neuf des équipements scolaires, les programmes d'anglais en première et terminale et de "Euskaraz Bizi", l'application des nouvelles technologies, l'achat de nouveaux ordinateurs, la formation WIT des professeurs, la mise à jour des pages web... Finalement, il nous a donné une très vaste information sur le programme d'échange entre élèves de différents pays.

XABIER INSAUSTI. A.Lko BATXILERGOKO KOORDINATZAILEA

“Lan egiten jarraitu dugu”



Xabier Insausti, Batxilergoko koordinatzailea.

Axular News: Zilarrezko Qa lortu ondoren, kalitatearen arloa lasaitasunez hartu edo lana egiten jarraitu duzue?

Xabier Insausti: Zilarrezko Qa, 8 edo 9 urtetan helburu batekin lan egiten ondoren lortu genuen, horren helburua ikastola hobetzea zen. Bereziki irakaskuntzan hobetzeko, kalitate gehiago emateko, hobeto funtzionatzeko eta etekin onak ateratzeko.

Behin Q lortua, hobetzen, lan egiten eta kalitatearen arloan formakuntza jasotzen jarraitu dugu egin genuen guztiari jarraipena emanez.

A.N.: Kalitate arloan Axular Lizeoak duen gertuko helburua urrezko Qa lortzea al da?

X.I.: Bai, aurreikusita daukagu bi urtetara, gutxi gorabehera, azterketara aurkeztuko garela. Izan ere, Urrezko Qa ez da helburua, baina, azterketa hori egoteak erritmo bat jartzen digu nola joan behar dugun jakiteko. Azterketak lana egitea behartzen du, eta, egia esan urrezko Qa lortzen badugu askoz hobe.

A.N.: Bide horretan zein irizpiderekin egingo duzue lan?

X.I.: Kalitate sistemak, azken finean, lan esparru desberdinak nabarmentzen ditu. Lan egiteko, 9 irizpide ezberdinak daude: 4 emaitzak eta 5 akzioak. Bost horiek hauxek dira; lidergoa; pertsonala; gizartea, jendearekin harremanetan jartzea; guztiaren funtzionamendurako dauden prozesuak; eta azkenik, hausnarketa estrategikoa dago, nora iritsi nahi dugun, zer egin nahi dugun...

Xabier Insausti el coordinador de Bachiller del Liceo Axular, explica el trabajo que se ha hecho en la ikastola para mejorar la calidad del centro, después de lograr la Q de plata de Euskalit y la mención honorífica del Ministerio de Educación y Ciencia de Madrid.

Xabier Insausti, the coordinator of Bachiller in the Axular Lizeoa school, explains in this interview the work that has been made in the school to improve the quality of the centre, after obtaining the Euskalit Silver Q Award and the Quality Award given by the Department of Education and Science of Madrid.

Xabier Insausti le coordinateur de BAC du Lycée Axular explique dans cet entretien le travail qu'on a fait dans l'école pour améliorer la qualité du centre, après d'obtenir la «Q d'argent de Euskalit» et «La Mention Honorifique du Département d'Éducation et Science de Madrid».

Gu orain, lidergoa sakontzen ari gara. Orduan, aurten bereziki, lidergoari ematen diogu hobekuntzaren protagonismoa, horregatik, formazioa jasotzen, formazioa ematen eta gauza pila bat aldatzen ari gara.

A.N.: Lidergoa da bereziki lantzeko irizpidea. Zer urrats jarraituko duzue arlo honetan?

X.I.: Oraingoan, jendea formatzen ari gara lidergo maila horretan teoriarik izatea zer den jakiteko. Orain egiten ari garena bakoitzaren lidergo maila ebaluatzea da, analizatzea. Autoebaluazio bat da, galdera batzuekin, horrek informazio bat ematen digu. Bestetik, gure artean ebaluatzean ari gara, honek diagnostiko bat edukitzeko balio du, horrela, gure gabeziak non dauden eta zer aldatu behar dugun jakiten dugu. Hori bukatutakoan, lidergo plan bat definitzen dugu. Eta dakigunez, lidergoa hobetzeko ezinbestekoa da formazioa jasotzea.

Horregatik, formazioa jasotzen ari gara taldekide guztien artean.

A.N.: Beste berriren bat al dago kalitateari begira?

X.I.: Alde batetik, lana egiten jarraitzen dugula, bestetik, hemendik bi urtera berriro Qa lortzeko aurkeztuko garela. Beste berri bat, aurten lehiaketa batera aurkeztu garela, eta han guk egiten ditugula hobekuntza nagusien artean berritzaileena zena erakutsi dugu. Hori dela eta, gure web orrien funtzionamendua azaldu genuen, ikastolako Axular.net eta Axular.org, azkeneko hau, ikasgela birtual bat da, irakasle-ikasle arteko harreman birtuala interneten bitartez.

MIRARI OLAIZOLA. A.L.KO HAUR HEZKUNTZAKO KOORDINATZAILEA

EUSKAL CURRICULUMA



Mirari Olaizola, Haur Hezkuntzako koordinatzailea.

A.N.: Bi hitzetan, zer da Euskal Curriculumuma?

MIRARI OLAIZOLA:Euskal Curriculumuma ondorengoa litzateke: ume batek bere ibilbidea hamasei urte izan arte, ikasi edo jaso beharko lituzkeen era guztietako hazkuntzarekin loturiko eduki kontzeptualak, gaitasunak, konpetentzia. Bizitzarako balioko zaizkien eduki guztiak osatuko lukete Euskal Curriculumuma. Euskal deitzen zaio, batez ere, hemen gaudelako, horregatik gauza asko egokituta egongo dira Euskal Herriari.

A.N.: Nola sortu zen Euskal Curriculumumaren ideia?

M.O.:Batez ere, Ikastolen Elkarte edo Federazio inguruko jendea izan zen ideia honekin hasi zena. Ikastolak curriculum propio baten bultzatzaileak izan dira. Gaur egun, Euskal Herrian, badago curriculum bat lantzen dena, Gobernutik edo Hezkuntzatik planteatu dena. Baina curriculum horrek, ikastoletan, eskola publikoetan, erlijiosoetan, etab. gauza desberdinak lantzen ari garela esaten duenez, ikastolen asmoa, denen artean komuna den zerbaitetan ados jartzea izan zen. Horregatik, lan egiten hasi ziren eta batez ere, Xabier Garagorri. Azken hori unibertsitate eta ikastoletako pertsonekin harremanetan jarri eta lan hau lortu dute.

A.N.: Desberdintasunak al ditu curriculum honek gaur egun daukagun heziketa antolakuntzarekin?

M.O.:Eduki kontzeptualei dagokienez antzekoa landuko da. Beraiek oso modu sakonean landu dute Euskal Curriculumuma. Batez ere 5 gauzatan zentratu dira besteak beste umeek, beraien kabuz pentsatzen ikasi behar dutela, norbera izaten ikasi behar dutela, komunikatzen jakin behar dutela.... Pertsona batek bere ibilbidean zer ikasi behar duen erabaki da erabakiz.

A.N.: Ze hobekuntza ekarriko ditu Euskal Curriculumumak?

M.O.: Planteatzen duenarekin hobekuntza asko ekarriko

Mirari Olaizolak, Axular Lizeoko Haur Hezkuntzako koordinatzaileak, Euskal curriculumaren jarraipenean hartzen du partaidetza. Hori dela eta, hemen dugu gai honi eta berak egindako lanari buruzko elkarrizketa.

ditu. Denok espezialistak baino hezitzaileak garela planteatzen du. Eta Curriculumak hori ekarri beharko luke.

A.N.: Nolatan zara zu arlo honetan lan egiten duena?

M.O.: Neurri handi batean larunbatetako goiz osoko bileretara joateko norbait behar zelako izendatu ninduten. Gainera, zuzendaritzako behar zuten. Hori zela eta, Jose Ramon Iturain joan zen eta irakasleen artean norbait behar zen. Beraz koordinatzailea naizen heinean ni nintzen joateko aukeratako bat. Bilera horretara ni joan nintzen baina gerora, Curriculumuma gehiago lantzen hasi ginenean Federazioekin, Amaia Urruzmendik hartu zuen lan horren ardura.

A.N.: Zutaz gain, ikastolako beste norbaitek parte hartzen du arlo honetan?

M.O.:Bai, Jose Ramon, bilera horretara joan zen. Jesusek, gai guztia landu du. Denok, zuzendaritza mailan, inkesta bat bete dugu. Amaia Urruzmendi da bileretara joaten dena eta kontaktuan mantentzen gaituena. Gero, batzordean, gurasoek parte hartu dute inkesta betetzen. Azkenik, etapa guztietan, irakasle guztiek zegokigun zatia irakurri genuen eta inkesta bete da klaustro guztietan.

A.N.: Ikastolak zer lan egiten ditu Euskal Curriculumumaren jarraipenean?

Bilerak egin dira. Orain, inkestak bete ondoren, bileretara joaten jarraitu behar dugu eta ikastola desberdinetan ze gauza atera diren ikusiz gero, eskola desberdinetatik, eskola mota desberdinetatik atera dena konparatu eta ezaugarri komunak aurkitu beharko ditugu. Ondoren, ikastolen munduan baita ere, beraien artean konparaketak egin behar dira ezaugarri komunak aurkitzeko. Izan ere, ikastolen arteko ezaugarri komunak gehiago izango dira eskola ezberdinetakoak baino. Eta udazkenean berriro bildu egin beharko gara, hainbat eztabaida egiteko. Gutxi gora behera, prozesua hurrengo urtean bukatuko da, han erabakiak hartuko dira proiektua

JUAN EZEIZA. A. Lko WEBMASTERra*Jesús Etxaniz eta Juan Ezeiza saria jaso ondoren*

A.N: Zer sentitu zenuten saria irabazi zenutela jakin zenutenean?

J.E: Poza. Egindako lana ikusia eta baloratua izanaren ondorioz.

A.N: Espero zenuten sari hau irabaztea?

J.E: Egia esanda ez. Topaketa honetan 10 praktika onenak aukeratzen dira, eta ondoren hamar hauen artetik egokienak. Ez genuen inola ere uste sari hau irabaziko genuenik, izan ere, enpresek ere parte hartzen zuten.

A.N: Zergatik irabazi duzue sari hau?

J.E: Komunikazio aldetik kalitate handiko ideia berriak erabili ditugulako.

A.N: Sari hau garrantzitsua al da ikastolarentzat?

J.E: Bai, noski. Pasa den urtean kalitatearen Q saria eskuratu genuen eta Espainiako Hezkuntza Ministerioak beste sari bat eman zigun. Aurten beste bat irabazi dugu, beraz, bide onetik gabiltza.

A.N: Sari hau irabaztea zaila egin al zaizue?

J.E: Gure helburu nagusia ez zen saria irabaztea. Lan handia egin da web gunean eta lehiaketara aurkeztea pentsatu genuen.

A.N: Nori esker lortu al da?

J.E: Saria niri eman bai, baina ez egokitu. Ikastolan badago komunikazio talde bat, eta horrez gain irakasleek ere lana egin dute, beraz, proiektua da saritzen dena. Hemen ez dago inor behar-beharrezkoa denik.

A.N: Zer nolako lan egin duzu Axular Lizeoak sari hau irabazi dezan?

J.E: Proiektua IKT taldeak sortu eta gero ikastolak praktikan jarri zuen. Web gunea eta ikasgela birtuala izan dira sarituak. Duela hiru urte sortu genuen web gune berria eta bertan erabaki genuen eremu pribatuak sortzea ikasleentzat. Badaude gauza asko poliki-poliki egiten joan garen, eta saritu dena proiektu osoa izan da.

A.N: Zer aurkeztu zenuten proiektuan?

J.E: Orokorrean esanda, egindako lana. Zer den axular.net, zer den ikasgela birtuala, zer gauza dauzkagun, zer egiten dugun egunero web gunean...

A.N: Urduri jarri al zinen aurkezten zenuen momentuan?

J.E: Urduri jarri nintzen, noski. Nahiko ondo disimulatu nuela esan zidaten baina hasiera batean aurkezpenarekin hasi ginenean, hango ordenagailuarekin arazo bat izan genuen eta ikastolako ordenagailuarekin jarraitu behar izan genuen.

2005ean Euskalitek antolatutako Kudeaketa Praktika Onen Bigarrenko Topaketan web atariari buruzko ponentzia aurkeztu genuen. Topaketa horietan 400 Klubeko enpresen artean, hau da, zilarrezko edo urrezko Qa duten enpresen artean, hamar praktika on aukeratzen dira. Ponentziak aurkeztu ondoren gureak 2005 urteko praktika onenaren saria merezi izan zuen

En el 2005 presentamos la ponencia de nuestra página web en los Segundos Encuentros de Buenas Prácticas de Gestión, organizado por Euskalit. En estos encuentros entre las empresas del Club 400, actuales poseedores de la Q de oro o de plata, se escogen las diez mejores prácticas. Después de presentar las ponencias, las ikastola obtuvo el premio a la mejor práctica del 2005.

In 2005 we displayed our Web page in the Second Encounter of Good Management Practices organized by Euskalit. In this encounter among the companies belonging to the Club 400, which have the Silver or Gold Q the ten best practices are chosen. After having presented the communications, ours obtained the Price for Best Practice in 2005.

En 2005 nous avons présenté la communication de notre page Web lors de la Deuxième Rencontre de Bonnes Pratiques de Gestion organisé par Euskalit. Dans cet événement on joint les entreprises appartenant au "Club 400" (c'est à dire, celles qui ont le Q d'Argent ou celui d'Or) pour choisir les dix meilleures pratiques. Après la présentation des communications, la nôtre a obtenu le Prix à la meilleure pratique du 2005.

“Axularreko kirol maila oso ona da”

Jon Kepa Eguren, Aitor Uriondo eta Bittor Arrondo dira Axular Lizeoko Kirol Heziketaz arduratzen diren irakasleak dira. Elkarrizketa honetan Axularreko Kirol Heziketari buruzko iritzia ematen digute.

Axular News: Ze ezaugarri ditu Axular Lizeoko kirol heziketak?

Jon Kepa: lehenengo zatia, ikusita erlazionatuta gaudela kirol eskolarra eta soinketa klaseak, hemengo koordinatzaile guztiak irakasleak garelako, entrenamenduak alde teknikoari garrantzi gehiago emanda planteatu daitezke. Nik uste dut planteamendua dela Aitor Uriondo saskibaloia munduko pertsona izanik, eta ni, IVEFen ibilitako pertsona izanda, betidanik izan dugula lotura handia kirolarekin eta oso garbi dauzkagula kirol heziketa on bat egiteko behar diren puntu guztiak. Gainera, Bittor daukagu hor, dena koordinatzeko.

A.N.: Zure ustez nolakoa da Axularreko kirol maila?

J.K.: Nik uste dut Axularreko kirol maila oso ona dela, batez ere, partizipazio kopurua oso altua izatea lortu dugulako.

A.N.: Nola aukeratzen dituzue ikastolako entrenatzaileak?

J.K.: Saskibaloikoak Aitor Uriondoren bidez aukeratzen ditugu, federaziotik izenak hartuz. Futboleant, berriz, aurreko urtean gustatu zaizkiguneri jarraitzeko eskaintza egiten diegu eta hutsuneren bat geratzen bada boluntarioen bidez konpontzen da.

A.N.: Kirolari ona izatera iristeko zer egin beharko genuke?

J.K.: Lehendabizi, kirolari ona zer den jakin beharko genuke. Profesionala izatera iritsi nahi bada, uste dut, ona izateaz gain, zorte asko eduki behar dela batez ere. Momentu egokian leku egokian egon behar da. Baita ere burua argi edukitzen jakin behar da.

A.N.: Zeintzuk dira eta zein irizpidetan oinarrituta aukeratzen ditu kirolak Axular Lizeoak?

Bittor Arrondo: Betidanik saskibaloia eta futbola (areto futbola) izan dira Axularren eta beste ikastetxetan aukeratuena izan diren kirolak. Kontuan hartuta ez garela oso ikastola handia eta ezin ditugula kirol asko eskaini, bi hauek egokitu ginen. Dagoeneko ohikoak dira bi kirol hauek.

A.N.: Ze urte bitartean jolasteko aukera ematen du Axularrek?

B.A.: Ofizialki ekipoak benjaminetatik batxilerrakoak dira. Ala ere futboleant erregional talde bat dugu, eta talde horretan unibertsitarioak ere sartu daitezke. Gainera, Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetan ere, larunbatetan kirolaren hastapenerako saio batzuk antolatzen ditugu.



Jon Kepa Eguren, Aitor Uriondo eta Bittor Arrondo

A.N.: Ona al da umeek kirola oso gaztetatik serio hartzea?

B.A.: Serio baldin bada arduratsua izatea eta lagun, entrenatzaile eta aurkariekin begirunea izatea, noski ona dela. Serio baldin bada txiki-txikitatik, umea izar bat dela pentsatzea eta kirolarekin itsututa egotea ordea, kaltegarria da.

A.N.: Orokorrean zein hobekuntza egin daiteke arlo honetan bai ikastetxetatik eta bai toki ofizialetatik kirola planifikatzean?

B.A.: Teknifikazio mailan batik bat. Saskibaloiko monitoreak nahiko teknifikatuta daude baina futbolekoak, zoritxarrez, ez hainbeste. Aukera handirik ere ez dituzte ematen instituzioek, batez ere, Futbol Federazioak, baina harremanetan ari gara Errealarekin datozen urteetan monitoreen teknifikazioan laguntzeko.

A.N.: Ezagutzen al duzu Axularretik ateratako kirolariren bat?

Aitor Uriondo: Bai, ezagutzen ditut hainbat kirolari profesional izatera iritsitakoak, bai saskibaloian eta bai piraguismoan.

A.N.: Azkenik ze aholku emango zenieke gazteei sasoitsu mantentzeko?

A.U.: Kirola egin, batez ere pisu arazoak dituzten gazteek, gorputza sasoitsu mantentzeko.

A.Lko PROIEKTUAREN ARDURADUNAK. HAURRALDE PROIEKTUA

“Urtean 6 euro ematea ez da ezer”

Duela 8 urtetik Axular Lizeoak darabilen gizatasun proiektu bati, Haurralde Proiektuari buruz euren ikuspuntu nahiz jakina azaldu digute, DBH 3ko arduradunek, Maria Labaca eta Amaia Lopez, eta Juan Ezeizak, ikastolako proiektuaren arduradun nagusiak.

JUAN EZEIZA “Orain zortzi urte gutxi gora-behera sortu zuten proiektu hau DBH 2ko ikasle batzuek, tutoreari ume bat apadrinatu nahi zutela esanez. Honen ondoren, ohitura bezala hartu zuten DBHn sartzen zen gela bakoitzak ume bat apadrinatzea. Proiektu honek gure ikastolako gazteen eta urrutiko umeen arteko elkartasuna eta eurekin kontaktuan mantentzeko aukera ematen du. Gutxi gora-behera klase bakoitzak 168 €jasotzen ditu urtean, eta hau bider 12 eginez (hamabi klase baitira ume bat apadrinatua dutenak) 2000 € jasotzen dira. Normalean gela bakoitzeko ikasle guztiek parte hartzen dute, baina denean bezala, hemen ere salbuespenak daude”.

MARÍA LABACA “Lehenengo aldiz Haurralderi buruz hitz egin zidatenean, proiektu interesgarria iruditu zitzaidan, besteak beste, ume bat apadrinatu behar genuelako. Guri egokitu zitzaigun umea Halhal-ekoa zen, Eritreako herri txiki batekoa. Urtean bitan bidaltzen dizkiogu elkarri argazki zein gutunak. Hain urrutian lagun bat dugula pentsatzeak; poztasuna, harrotasuna eta laguntasuna sentiarazten digu gela guztiari. Ondorioz, erabat ados nago proiektu hau aurrera eramatearekin eta ikastola askorentzako adibidea dela iruditzen zait. Urtean sei eurogatik biziak salbatzea ez baitzaigu ezer kostatzen”.

AMAIA LÓPEZ “DBH 1.mailan hasi nintzen proiektu honetan arduraduna izaten. Zozketaren bitartez aukeratu ninduten. Proiektu hau polita eta interesgarria da. Zabaldua egon beharko luke ikastola guztietan. Ezer ez daukaten horiei lagun diezaiekegu diru gutxiren truke. Apadrinatuta daukagun umeak Awet izena du, 17 urte ditu eta Eritrean bizi da. Gutunaren bitartez jartzen gara harremanetan. Batzuetan bideoak ere bidali dizkigu eta inoiz Haurralde Fundazioko zuzendaria den Patricia Ponce Pascuale, ikastolara etorri da apadrinatutako umeen berri ematera. “



DBH 3ko Haurralde proiektuaren arduradunak

Juan Ezeiza nos cuenta cómo desarrolla sus actividades mediante el liceo Axular y cómo se convirtió en encargado de mantener el contacto con la fundación Haurralde. Nos habla quién fue el autor de la idea y lo que piensa sobre este proyecto. También hablaremos sobre las opiniones de María Labaca y Amaia López, portavoces de Haurralde en 3º de ESO.

Juan Ezeiza nous raconte le développement de ses activités dans le programme de collaboration entre le Lycée Axular et Haurralde. Juan nous explique comment il est devenu le responsable de rapports avec cette fondation, qui a eu l'idée du projet et ce qu'il en pense. On demandera aussi l'opinion de María Labaca et Amaia López, porte-paroles d'Haurralde en DBH 3.

Juan Ezeiza tells us how he develops his activities in Axular, and how he became responsible for coordinating with the Haurralde foundation. He tells us who was the author of the idea and what he thinks about this project. Also we will hear the opinions of María Labaca and Amaia López, the spokespeople of Haurralde in DBH 3.

Gizatasuna eta gizartearekiko konpromisoa

A.N.: Zerk bultzatu zintuen Haurralde sortzera ?

P.P.P.: Nik gogoratzen dudanez, ez dut gizartearekiko erlazioa duen lanik ez dut egin eta Haurraldek hutsune hori bete egin dit.

A.N.: Zein da Haurralden betetzen duzun kargua?

P.P.P.: Zuzendaria naiz.

A.N.: Zenbat urte daramatzazu fundazioaren barruan?

P.P.P.: 8 urte daramatzat.

A.N.: Haurralde fundatu baino lehen beste G.K.E.-ren batean lan egin al zenuen?

P.P.P.: Bai, bolondres bezala FAGI, ATERPE, UNICEF, ASIS eta Lasarteko ijitoekin egon nintzen.

A.N.: Haurralderekin joan al zara noiz ala noiz bolondres moduan?

P.P.P.: Ez, bolondres bezala ez. Egindako bidaiak zuzendari moduan eginikoak dira.

A.N.: Zertan datza Haurralde fundazioak?

P.P.P.: :: Ume eta emakumeen hezkuntzaren garapenerako fundaturiko GKEa (Gobernuz Kanpoko Erakundea)

A.N.: Apadrinatzeaz gain zein beste proiektu aurki ditzakegu?

P.P.P.: :: Garapenerako kooperazioa, eta honen barruan: alfabetizazioa, heziketa eta gaixotasun ezberdinentzako prebentzioa (batez ere malaria eta tuberkulosia) ume eta emakumeentzat.

A.N.: Elizak ba al du zerikusirik fundazioarekin?

P.P.P.: :: Ez, Gobernuz Kanpoko Erakundea izanik ez du zerikusirik.

A.N.: Zein ume apadrinatzen dituzue normalki, familia dutenak edo umezurtztegian daudenak?

P.P.P.: :: Biak apadrinatu ohi dira, baina agian gehiago familiarekin bizi direnak. Ume guztiek baitute familia non ala non.

A.N.: Apadrinatzaileak ba al du modurik umea ezagutzeko edo berarekin kontaktuan jartzeko?

P.P.P.: :: Bai, urtean bitan gutxi gorabehera, gutunak bi



daltzen dira; eta apadrinatzaileak nahi izanez gero umea bisita lezake fundazioarekin kontaktuan jarritz.

A.N.: Umeak jakin badaki apadrinatua dela? Umeek pena sentitzen al dute gure berri jakitean beraiek berdina bizi ezin dutela jakinik?

P.P.P.: :: Bai, umeek erlazio bat ezartzen dute apadrinatzailearekin eta izugarriko ilusioa egiten die euren berri jakiteak. Ez dute penarik sentitzen, ordea, beraiek pozik bizi baitira beharrezko gauzak dituztelako.

A.N.: Bolondres bezala joateko zein ezaugarri edo kondizio bete behar dira?

P.P.P.: 18 urte baino gehiago izatea. Ingelesa edo frantsesa jakitea, segun eta zein herrialdetara zoazen. Eta batez ere profil unibertsitario bat baino gehiago, gizatasuna eta konpromiso soziala.

A.N.: Nola igortzen dira dirua edo laguntzak apadrinatuarengana? Lortutako dirua zertan erabili ohi da?

P.P.P.: :: Dirua urtean bi aldiz bidaltzen da, fundazioak duen banketxeko kontura. Lortutako dirua irakaslea, eguneroko janaria, arropa, eskolako materiala, medikuntza behaketak...ordaintzeko erabiltzen da. Medikuntza behaketen barruan, batez ere: malaria, tuberkulosia, HIESA (Afrikan batez ere), polio eta azaleko eta besoetako malformazioentzako botikak lortu edo bidali ohi dira.

“Askok musika hobby bat bezala hartzen dute”

Pili Lobera, Axular Musika Eskolako koordinatzailea, orain dela 19 urte hasi zen Axular ikastolan pianoa irakasle bezala lan egiten. AMEk urteroko ekitaldiekin Mozart eta Arriagaren urteurrenak ospatuko ditu.



Pili Lobera pianoa klase bat ematen.

Axular News: Dagoeneko ikastolan pianoa irakasten ari zara. Noiz hasi zinen musika ikasten?

Pili Lobera: Txikia nintzela, 8 urte nituenean.

A.N.: Pianoaz gain beste instrumenturik jotzen al duzu?

P.L.: Ez, pianoaz aparte ez dut beste instrumenturik jotzen. Instrumentu bakarrarekin nahikoa iruditzen zait.

A.N.: Badakigu goi-mailako titulua lortu zenuela, baina non ikasi zenuen musika?

P.L.: Musika, hemen, Donostiako kontserbatorioan ikasi nuen.

A.N.: Nola sortu zen AMEa? Zein helbururekin?

P.L.: Hona iritsi nintzenerako klaseak ematen ari ziren. Lanean hasi nintzenez, orain dela 19 urte, zentro ofiziala eta musika eskola izatea lortu genuen. Beste alde batetik, Eusko Jaurlaritzaren opariak jaso genituen. Helburu nagusia Axular Lizeoko ikasleek musika ikastea zen. Bide batez, ikasleen eguerdiko ordutegia betetzeko aukera sortu zen.

A.N.: Zer ikasle motak aukeratzen du musika estraeskolarretan?

P.L.: Txikitan hasten direnean, gurasoek matrikulatzen dituzte musika ezagutzeko helburuarekin. Gero, denborarekin, batzuek jarraitu egiten dute, etxetik bultzatzen dituztelako edo beraiei gustatzen zaielako. Beste batzuk, berriz, musika utzi egiten dute gustatzen ez zaielako, aspertzen direlako edo beste ekintzaren bat gehiago interesatzen zaielako.

A.N.: Nola daukazue antolatuta ikasturtea?

P.L.: Normalean, bi kontzertu finko egiten dira urtean zehar; bat gabonetan eta bestea, kurtso bukaeran. Bertan, ikasle guztiek parte hartzen dute. Batzuetan, beste emanaldi batzuk ere egiten ditugu. Aurreko urtean, adibidez, koroa eraman genuen Lezora eta gero, alderantziz, Lezokoak honera etorri ziren. Gabonetan, baita ere, flautak Matiara joaten dira. Beranduago, Astigarragako

musika-eskolarekin kontzertuak egin genituen; bertakoak honera etorri ziren eta gero, gu hara joan ginen etab.. Aurten, antzeko programazioa beteko dugu.

.N.: Noiz bukatzen da A.L.ko ikasle baten karrera musikala?

P.L.: Normalean, ez dituzte ikasketak egiten. Ikasleek musika hobby bezala hartzen dute. Gaur egun, oso zaila da musika ikastea. Lehen, ertaineko karrera eta goi-mailako karrera zeuden eta bi titulu ematen zituzten. Orain, berriz, goiko zikloarekin lortzen da titulua eta oso zaila da.

A.N.: Zer ehunekotan jarraitzen dute ikasleek musika ikasten?

P.L.: Oso triste da, baina inork ez du jarraitzen musika ikasten. 19 urte daramatzat hemen lan egiten, eta oraingoz, 4 pertsonak bakarrik bukatu dituzte ikasketak. Musika-eskolako helburua ez da musikako ikasketak egitea, hobby bezala jardutea baizik.

A.N.: Egiten al duzue ikasle horien jarraipen bat?

P.L.: Ez daudenez, ezin dugu jarraipenik egin. Badago gurekin ikasi zuen neska bat hona ordezkapenak egitera etorri zena. Musika ikasketak bukatu zituen, eta momentu batean berarekin jarraipen bat izan genuen; baina beste toki batera lan egitera joan zenean, jarraipen hori galdu genuen.

A.N.: Zer aholkatuko zenioke ikasle ohi bati musikarekin jarraitzeko?

P.L.: Hori beraiei atera behar zaie. Geroz eta gauza gehiago ikasi behar dituzte. Gu beraiei formazio bat ematen saiatzen gara, beraiek nahi dutenean erabili ahal izateko. Adibidez, txikiek badute denbora instrumentu bat jotzeko, baina bi urte barru ezin izango dute egunero ordu bat jo. Gero eta gauza gehiago egiten dituztenez, musika momentu batean uzten dute. Guk hori onartu egiten dugu. Gaur egun, beste mentalitate bat dago, umeez gauza gehiago dituzte egiteko (kirola, hizkuntzak...). Askotan, gurasoek gauza horiek musika baino garrantzitsuagoak direla pentsatzen dute. Beti, musika bigarren planoan gelditzen da.

EIDER ARZELUS ETA ELI MORENO. SEXU HEZIKETAKO IKASTAROAREN ARDURADUNAK

“Sexua, koittoa egitea baino askoz gehiago dela jakinarazi nahi dugu”

Eider Arzelus eta Eli Moreno Axular Lizeoan ematen den sexu-heziketari buruzko ikastaroaren arduradunak dira. Ikastaro hori Batxilergo 1eko ikasleentzako antolatuta dagoen arren DBH 4 kurtsoan izaten du isla. Orain arte izandako esperientzia guztiz positibotzat jotzen dute bai beraiek bai ikasleek. Urtero emaitzak txosten batean biltzen dira eta horien azalpenak Guraso Eskolan plazaratzen dira.



Eider Arzelus erdian eta Eli Moreno eskubian

AXULAR NEWS: Zeintzuk dira zuek egindako ikasketak?

ELI: Psikologia eta sexologiako postgradua. Eta orain familien arteko bitartekaritza ikasten ari naiz.

EIDER: Haur hezkuntza egin dut, sexu heziketako ikastaroa eta musika-terapia jarraitzen dut ikasten.

AN: Non egiten duzue lan?

EA: Gipuzkoako ikastetxeetan. Elgoibarren sexologiako zerbitzua daukagu gazteei zuzendua kezkak argitzeko. Aholkularitza... eta horretaz aparte hitzaldiak, tailerrak... antolatzen ditugu.

AN: Zenbat urte daramazue proiektu hau aurrera eramaten?

EM: Proiektu hau gu lanean hasi baino lehen martxan zebilen, 1986 hain zuzen ere. Baina ni orain dela zortzi urte hasi nintzen proiektu honekin.

EA: Nik lau-bost bat daramatzat.

AN: Zertan datza ikastaro hau?

EA: Sexualitateko aspektu guztiak lantzen ditugu eta hel

buru bezala norberak jarrera baikorra edukitzea bere sexualitateaz.

EM: Bere sexualitatearekin eta bere gorputzarekin gustura sentitzea.

AN: Zeintzuk dira ikastaro honen ildo nagusiak? Zer gai jorratzen dituzue?

EM: Plazerrari buruz, sexu harremanez, bikote harremanez, HIESari buruz eta bere prebentzioa, nahigabeko- haurdunaldiez, antisorgailuez...

AN: Gai guztien artean ba al dago baten bat azpimarratzekoa dena?

EM: Jendeari sexu hitzarekin koittoa bakarrik etortzen zaie burura eta guk hori aldatu nahi dugu. Sexu hitza askoz ere orokorragoa da eta.

AN: Jardunaldi hauetan zein da ikasleek duten lan egiteko dinamika?

EA: Talde dinamiken bidez, jokoak eginez...Hasieran test bat pasatzen dugu zein iritzi duten jakiteko eta bukaeran zer ikasi duten ikusteko.

AN:Ikastaroa bukatu eta badakigu horren jarraipenak DBH 4n isla duela. Nola antolatzen duzue? Zer helbururekin?

EM: Batxiler lean hamar ordu pasatzen ditugu eta gero ikasle batzuk aukeratzen ditugu DBH 4n hitzaldi bat emateko. Ikasleak zozketa bidez aukeratzen ditugu beraien borondatez. Aukeratzen ditugun ikasleekin beste sei ordu pasatzen ditugu beraiek azaldu behar dituzten ideiak trebatzeko . Hitzaldi hauek arrakasta dezente izaten dute.

AN: Urtero jasoko duzue informazioa eginiko ikastaroaz. Nola tratatzen duzue? Azaltzen al dituzue datuak?

EM: Ikastaroan zehar jasotzen dugun informazioa era askotakoa da hala nola, pasatako testetatik lortzen duguna, saioetan plazaratzen diren galdera irekiak edota norberaren zalantzak. Urtero txosten bat osatzen dugu eta gurasoei informazioa helarazten zaie Guraso Eskolan antolatzen den hitzaldiaren bidez.

MIKEL, KOLDO eta GORKA. A.Lko KULTUR TALDEKO PARTAIDEAK*Eskerretik hasita Mikel, Koldo eta Gorka*

AXULAR NEWS: Zenbat denbora daramazue kultur taldean?

KL: Batxiler lean hasi ginen, beraz bi urte bete behar ditugu. Axular Lizeoko Kultur Taldea Batxilergoko ikasle arduradunok zein irakaslek kudeatzen dugu.

AN: Zerk bultzatu zintuzten kultur taldean sartzea?

KL: Gehienbat euskararekin daukagun konpromisoak.

AN: Zertan datza Kultur Talde honen zeregina?

KL: Euskara bultzatzean datza, euskara gero eta gehiago gazteen artean erabiltzea bultzatu nahi dugu. Horretarako irakasleekin bilerak eta ekintza desberdinak antolatzen ditugu kurtsoan zehar.

AN: Zer gai jorratzen dituzue?

MI: Gehienbat euskararekin loturik daudenak. Kultur Taldearen zeregin nagusia euskararekin bat datozen arloak jorratzea da.

AN: Gai guztien artean ba al dago baten bat azpimarratzekoa dena?

GP: Udaberriko Festa da guretzat egiten dugun gauzarik garrantzitsuenak. Hori antolatzea ez da batere erraza. Maila guztietako ikasleek hartzen dute parte prestatzen ditugun ekintza desberdinetan: karaokea, pilota txapelketak, bertso saioak... Irakasleen laguntza ezinbestekoa izaten da gauza guztiak lotu ahal izateko. Orokorrean, pozik gaude emaitzekin. Gero, beste maila batean hitzaldiak ere antolatzen dira. Aurten adibidez Igor Jauregi eta Mikel Aranburu, bi futbolariak etorri ziren, baita ere Naroa Agirre atleta.

“Euskara bultzatzea da gure zeregin nagusia”

Koldo Loinaz, Gorka Pz. de Palomar eta Mikel Izquierdo Batxiler 2ko ikasleak Axular Lizeoko Kultur Taldeko partaideak dira. Bi urte daramatzate beste lagun batzuekin batera ikastolako euskara eta euskal kultura bultzatu nahian. Datorren urtean beste ikasle batzuek helduko diote beraiek orain arte eramandako lekukoari.

*Ikasleak eta irakasleak Udaberriko Festan*

LARRAITZ ARTETXE. EUSKARAZ BIZI PROGRAMAREN ARDURADUNA

“Argitxok eragin handia du Haur Hezkuntzako umeengan”

Larraitz Artetxek, Lehen Hezkuntzako ingeleseko irakasle eta Euskaraz Bizi proiektuko koordinatzaileak, euskara gehiago bultzatu behar dela baieztatzen du.

Axular News: Zer da Euskaraz Bizi proiektua?

Larraitz Artetxe: Orain dela urte asko sortu zen proiektu bat da. Ikastola desberdinetan zabaldua dago, euskara gehiago indartzeko eta bultzatzeko, bai ikastola barruko ordutegietan eta ikastolaz kanpoetan.

A.N.: Nor izan zen Euskaraz Bizi proiektuaren sortzailea?

L.A.: Jose Luis Gorostidi izan zen Euskaraz Bizi egitasmoaren sortzailea.

A.N.: Noiz sortu zen proiektu hau? Zein helbururekin?

L.A.: Lizarran sortu zen 1991. urtean. Helburu nagusienetarikoa bat euskararen erabilera indartzea zen, bai haurrak eta bai gazteak beraien harremanetan euskara erabiltzeko. Ikastola eta klasean zeuden bitartean, euskaraz hitz egitea zen beste helburuetarikoa bat.

A.N.: Zeintzuk dira antolatzen dituzuen ekintzak?

L.A.: Hemen, ikastolan, euskal kulturarekin lotutako ekintza batzuk egiten dira, euskaraz hitz egiteko. Beste alde batetik, bi ekintza puntual daude: gabon eguna eta udaberriko jaia. Ikastolak antolatzen dituen ekintza guztiak euskaraz egin ditzaten saiatzen gara. Gero, badago euskal Kultur Taldea lanean ari dena eta ekintza batzuk sortzen dituen.

A.N.: Argitxok zer zerikusi du proiektu honetan?

L.A.: Iratxo bat da eta hurrei begiratuta euskararekiko erreferentzia bat edukitzeko eta euskara bultzatzeko sortu zuten. Euskararentzako oso garrantzitsua da eta hurrei laguntzeko sortu zuten Euskaraz Bizi proiektua.

A.N.: Zer itxura du Argitxok?

L.A.: Iratxo honek abarkak eta txano gorri berezi bat eramaten ditu. Txanoa luzea da eta bertan txintzarri bat darama. Azkenik, galtzak berdeak dira.

A.N.: Argitxoren asmakizun honekin euskara gehiago hitz egiten al da?

L.A.: Txikiengan, bai, eragina dauka. Batez ere, Haur Hezkuntzan argitxo kontuan hartzen dute eta argitxoren aitzakiarekin euskaraz gehiago hitz egiten da. Batzuetan, Lehenengo Hezkuntzako haurrengan ere eragina du.



Larraitz Artetxe, Euskaraz Biziko koordinatzailea

A.N.: Zeinek parte hartzen du kanpaina honetan?

L.A.: Hasiera batean, Lizarrako ikastola izan zen sortzailea. Gero, beste ikastola batzuetan zabaldu zen eta, gaur egun, Gipuzkoako ikastola gehienetan hedatuta dago. Araban ere ikastola gehienetan aurrera eramaten da proiektu hau.

A.N.: Axularrek noiztik parte hartu du proiektu honetan?

L.A.: 1996. urtean, Axular Lizeoak Euskaraz Bizi proiektuan parte hartu zuen.

A.N.: Euskara egunean zer ekintza antolatzen dituzue?

L.A.: Ikasleentzat erakargarriak diren ekintzak antolatzen saiatzen gara baina, ez da erraza ekintzak asmatzea. Bertso lehiaketa, herri kirolak eta ipuin kontalariak egin ditugu. Haur Hezkuntzako haurrek argitxoren opariak jaso zituzten Txiki Parkera joateko. Beste batzuk, zinemara joan ziren “Aupa Etxebeste” filma ikustera eta beste hainbat bertsolari ere etorri dira. Agian ikasleek ere zer ekintza mota antolatu nahi duten esan beharko lukete. Horretarako, lan handia egiten duen Kultur Taldea dago.

A.N.: Euskaraz Bizi eta Axular Lizeoko Kultur Taldeko harremana nolakoa da?

L.A.: Harremana badago, baina agian gehiago izan beharko genuke. Kultur taldea euskaraz hitz egiteko eta euskararekiko zer ekintza antolatzen dituzten jakiteko dago. Laguntza behar baldin badugu, beraingana jo dezakegu. Agian beraien bileretan presentzia gehiago eduki beharko genuke.

MARIA JOSE LOSARCOS. MATIA FUNDAZIOKO GIZARTE LANGILEA

Mari Jose Losarcos Matia fundazioko gizarte langilea da: Izakoa eta Bermingham-eko eguneko zentrokoa. Bestalde, Matia bere zerbitzu guztiko eta zentru guztiko erabiltzaileen arreta zerbitzuaren arduraduna da. Erreklamazioez, etab. arduratzen da. 9 urte

Axular Lizeoa: Zenbat zentro dituzue?

Matia Fundazioa: Alde batetik, zentro erresidentzialak daude, gerontologiako zentroa deitzen zaien zaharren egoitzak, hain zuzen. Matiak 6 zentro gerontologiko dauka eta zaharren etxebizitzak bezala dira.

A.L.: Zer arreta ematen diezue hedadetuei?

M.F.: Matian dauden edadetuak oso dependenteak direla eta laguntza behar dutela edozein gauzatarako. Gehiengoak gurgildun aulkietan daude, zorotasun bat dute edo narriadura bat nibel mentalean. Edadetuei fundazio honetan ematen zaien lehenengo arreta funtsezko beharrak ematea da, bakoitzak duen beharraren arabera: jaten eman, jantzen lagundu... Pertsona bat gure fundazioan ingratzen duenean balorazio bat egiten da. Psikologo bat, erizain bat, gizarte langileak, medikuak eta gainontzeko profesionalek pertsona horrek duen kapazitatea gauzak egiteko baloratzen dute.

Arreta eta ardurako egitasmo bat ezartzen da. Horrela, pertsona horrek bere aldetik egin ditzakeen gauzak egitea bermatzen da. Alde batetik, osasun arreta dago, medikuek, etab. eskaintzen dutena edota sorospen arreta eta, beste alde batetik, programa batzuk daude. Hauetako batzuk eskulanei eta lan terapiari buruzkoak dira. Beste batzuk, aldiz, ezagutza maila handitzeko dira, buruzko kalkuluak egiteko edo orientatzeko. Beraz, egitasmo desberdinak finkatzen dira pertsona bakoitzarentzat. Orientazioa psikologa batekin lantzen da eta hauek pertsonaren gaitasunak baloratzen dituzte.

A.L.: Irteerak egiten al dituzue?

M.F.: Hamabost egunetik behin irteerak egiten dira. Hau asko gustatzen zaie. Adibidez, aquarium-era joatea, Moneoren kuboak bisitatzea... Eguneko zentroan, apirilean, hilabete honetako festa dugu eta tangoko klubetatik dantzariak etortzen zaizkigu hemen dantza egitera. Danborradan ere, Axularreko txikiak etortzen dira danborra jotzera eta ihauterietan konpartsa batzuk etorri ziren dantzatzera. Beraiek ere Donostiako festak ospatu behar dituzte.

A.L.: Aiton-amonak zentroan lo egiten geratzen al dira?

M.F.: Eguneko zentroan, aiton-amonak ez dira bertan lo egiten geratzen, goizean etorri eta gauean beren etxeetara bueltatzen dira. Honela beren adineko jendearekin erlazioa edukitzen dute. Hemen, jarduera desberdinak egiten dira beren gaitasunak mantentzeko.



María José Losarcos, Matia Fundazioko langilea

Goizeko bederatzietatik arratsaldeko bost eta erdietaraino egoten dira. Batzuk autobusez etortzen dira, beste batzuk, aldiz, beren senitartekoak ekartzen diete.

A.L.: Baliagarria kontsideratzen al duzu Axularretik joaten diren ikasleen laguntza?

M.F.: Bai, oso ekintza positiboa da bien mesederako. Pertsona helduei, zaharrei, bizitza handia ematen diete. Jendeak beti zaharretan pentsatzen duenean, ipurterre eta berekoiak direla uste dute, baina entzuten den hori ez da egia

Erlazio horrek benetan ondo funtzionatzen du. Helduak oso gustura daude beraiekin eta hain zain daude ea noiz itzuliko diren berriro. Gainera, gazteei ere ikusten zaie gustura doazela, bestela berriro ekintza burutzeko esango zietenean ez luketen baietz esango. Oso azkar hartzen dute dinamika eta badakite iristen diren momentuan non dauden jokoak, gelak. Baina gauza bat eskertzen dugu, etortzen ez badira beti ere abisatzea. Ikasleek helduetaz duten kontzeptua aldatu egiten da ekintza honekin. Azkenean, bai helduek ikasleei eta baita ere alderantziz, txera handia hartzen diete.

A.L.: Zer diote honi buruz adindun pertsonek?

M.F.: Badago esatera bat dioena "Gazteak altxor zoragarriak". Egia da lehenengo egunean aiton-amonak zertxobait urduri daudela, gazteak nolakoak izango diren jakiteko irrikaz, baina positiboki ikusten dute ekintza, jadanik aurreko urteetan izan duten esperientzia oso ona izan baita.

MARIA JOSE LOSARCOS. MATIA FUNDAZIOKO GIZARTE LANGILEA**A.L.: Gogorra al da hemen lan egitea?**

M.F.: Ez, baina gustatu egin behar zaizu, bestela ez dago egitekorik. Niri jende askok esaten dit ea nola lan egin dezakedan hemen, haiek ezingo luketela honelako leku batean lan egin. Egoera batzuk gogorrek direla onartzen dut, baina ez adindun pertsona hauek nola dauden jakin edota beren istorioa ezagutzea, baizik eta beren egoerak nola bilakatzen duen ikustea, okerragora kasu gehienetan. Egoera honek ahalmenak galtzea baitakar, baina haiek beraien aldetik jartzen dutenak asko laguntzen du kasu hauetan. Hala ere, nik ulertzen dut pertsona baten sentazioa honelako zentru batetara sartzen denean, ikusten duena pertsona zaharrak baitira, batzuk gorpildun ahulkietan... Nabaritzen da ez dutela egunero honelako jendearekin lan egiten. Ez dituzte ezagutzen, bakarrik egoera mugatu batean dagoen pertsona bat ikusten dute. Nik, aldiz, hori baino urrunago ikusten dut eta badakit zer gustatzen zaien, nolakoak diren... Erabat modu desberdinean ikusten ditugu pertsona hauek, nik pertsona bezala ezagutzen dudalako.

A.L.: Nor eskaini zen hara joateko edo nork erabaki zuen?

M.F.: Axularretik irten zen ideia. Nire ustez Juanek eta inguruko irakasleek pentsatu zuten askoz ere baliagarria izango zela benetako esperientzia bat probatzea, klase batean aiton-amonetaz hitz egitea baino. Hasieran, Juanek arazo dexente eduki zituela uste dut honelako esperientzia bat bilatzeko garaian. Izan ere, ate asko ikutu baitzuten M.F.-ra iritsi aurretik, gainontzekoak ez baitziren fidatzen: hain gazteak izanik, seguroekin arazoak, erantzukizun gehiegi...Guri, berriz, ideia bikaina iruditu zitzaigun. Laburbilduz, lehen esana bezala ideia Axularretik irten zen baina hemen oso ondo jaso izan zen. Jakina denez, gainera, ekintza hau urteak pasata geroz eta gehiago zabaldu da. Lehen Bermingham-eko zentru honetan bakarrik egiten baitzen, baina ekintza honetan parte hartu nahi duten ikasle kopurua handitu denez, Rezolako zentruan ere egiten da gaur egun.

A.L.: Beste eskola batzuetako ikasleak ere hona al datoz laguntzera?

M.F.: Oraindik ez, baina hurrengo astean etorriko dira. Oraindik ez dago ezer erabakita, baina printzipioz Ibaetako Tecnum unibertsitateko ikasle ingenieroak hona etorriko dira eta ideia da bi hilabetetarako gutxi gorabehera etortzea, behintzat ezagutu daitezen. Ez dira pertsona zaharrek egongo, ideia da pertsona gazteagoekin egotea. Izako zentruan 58 pertsona heldu baitaude 30 urtetatik 59 bitartean eta nola haiekin ez den inoiz inolako borondatezko edo laguntasun lanik egin behintzat probatzea da gure asmoa. Hala ere, gainontzeko eskolekin ez da egiten, Axularrekin besterik ez. Beste eskolaren bat eskainiko balitz saiatuko ginekeen ekintza aurrera eramaten, baina ez dakit Axularrekoekin bezain ondo atera litzakeenik.

A.L.: Ikastola eta fundazioaren arteko akordio honek**jarraituko duela uste al duzu?**

M.F.: Bai, seguru nago. Ikastolak egiten jarraitu nahi badu behintzat guk noski baietz.

A.L.: Zer eman die pertsona horiei M.Fak eta zer jasotzen du M-Fak pertsona horiengandik?


M.F.: Matiak ahal duen guztia ematen die, hobeto esanda beraiekin egunero lan egiten duten profesionalek. Dakiten profesionaltasun guztia ematen diete, behar duten arreta eta baita maitasuna ere. Horregatik jendeak galdetzen digunean ea zaila den hemen lan egitea ezetz erantzuten dugu, baina horretarako mugak jartzen ikasi behar da eta pixka bat gauzak bereizten. Adindun pertsona horiek ez baitira gure familiakoak, guk haiekin lan egiten dugun gaixoak baizik. Bestela haien arazoak etxera eramango genituzkeen egunero eta ezingo genuke gure bizitza bizi.

A.L.: Gaur egungo gizartean beharrezkoak al dira horrelako ekintzak?

M.F.: Bai, benetan beharrezkoak, baina oso gutxi daude. Horregatik, behin eta berriz errepikatzen diot nire senargaiari, bera maisua da eta, horrelako ekintzak antolatzeko. Hala ere, sormenezkoa izan behar zara ideia hau pentsatu eta aurrera eramaten saiatzeko. Adibidez, txikiak dantzatzera gure zentzura datoztenean. Batzuetan helduok gara oztopoak jartzen ditugunak.

A.L.: Zer ikasi dezake 16-17 urteko neska-mutil batek ekintza horretatik?

M.F.: Nik uste dut, zaharretaz duten irudi negatiboena aldatzen laguntzen duela batez ere. Bere aiton-amonaren erresidentzia batean ingesatua duen gazteak gaiak gehiago daki eta sentikorragoa da, baina honelako gutxi daude.





Idoia Urbietta bertako ikasle eta irakasle baten artean

Saint Chamond ha sido el destino de los alumnos y alumnas de 3 de ESO que han realizado el intercambio. Durante la semana de estancia en este lugar cercano a Lyon han podido practicar francés y conocer de cerca la vida y costumbres de aquellos que les han acogido en casa. Tanto los alumnos de Axular como los del Liceo Ennemond Richard han juzgado la experiencia como muy positiva. La segunda parte del intercambio se realizará el próximo curso.

The students of DBH3 have been to Saint Chamond for an exchange. During that week in St. Chamond, which is situated near Lyon, they could improve their French and knew the habits of French people. The students of Axular Lizeoa and Liceum Ennemond Richard said that the experience has been very positive. The second part of the exchange will be held next year.

Les élèves de DBH3 ont fait un échange. Pendant la semaine qu'ils ont été à Saint Chamond, un village situé à côté de Lyon. Ils ont pu pratiquer non seulement la langue française mais en plus connaître les habitudes des Français. Autant les élèves d'Axular Lizeoa que ceux du Lycée Ennemond Richard ont dit que l'expérience a été positive. La deuxième partie de l'échange se fera l'année prochaine.

Cloé Granottier. Ennemond Richardeko ikaslea

“Hurrengo urterako gutxienez aurten bezala igaro behar dugu. Esperientzia polita izan da denontzako”-esaten digu Cloé Granottier-ek. Nahiz eta Euskal Herria eta Donostiari buruz gutxi jakin, Donostiako hondartzak ezagutzeko irrikitan dago. **Errepikatzeko moduko astea izan da.**

Urki eta Jon. Axular Lizeoko ikasleak

Axular News: Zuen Frantziako egonaldia atsegina eta interesgarria izan al da?

Urki Etxaniz eta Jon Garcia: Bai, oso ondo pasatu dugu eta oso gustura egon gara bertan.

A.N.: Hizkuntza aldetik arazorik edo hobekuntzarik izan al duzue?

U.E. eta J.G.: Hasieran kostatu zitzaigun bertakoekin komunikatzea, baina, bukaeran normaltasunez komunikatzen ginen.

A.N.: Zer ekintza burutu dituzue bertan?

U.E. eta J.G.: Parc Naturel Regional du Pilat-era ezagutu genuen, olatuen igerilekura joan ginen, arte eta industriaren museo bat ikusi genuen, altxorren bila eta Laser Game-era jokatu genuen...

A.N.: Nolako lekua da Lyon?

U.E. eta J.G.: Leku nahiko industrialia da, nahiz eta leku atsegina eta historiko asko egon.

A.N.: Nolakoa izan da familiarekiko harremana?

U.E. eta J.G.: Oso ona, oso atsegina izan dira gurekin.

A.N.: Frantsesekin elkartrukea egiten den lehen urtea denez gomendatuko ahal zenukete beste urteetarako?

U.E. eta J.G.: Bai, denentzat gomendatuko genuke, esperientzia polita izan baita.

Idoia Urbietta. Axular Lizeoko irakaslea

Axular News: Zer emaitzak ekarri ditu trukaketa honek? Eta gustukoa al da zuentzat lortutakoa?

Idoia Urbietta: Emaitzak onak izan dira osotasunean eta oso gustura gaude lortutakoarekin. Ikasleekiko partaidetza handia egon da eta honek berriz egiteko gogoia ematen digu.

A.N.: Erraza izan al da gure egoera linguistiko berdinean dagoen beste ikastola bat aurkitzen?

I.U.: Ez, egia esan ez zaigu batere erraza egin. Kostatu egin zaigu, baina azkenean lortu dugu.

A.N.: Erraza egin al zaie hemengo ikasleei Frantziako ikasleekin komunikatzea?

I.U.: Bai, pentsatzen genuena baino hobeto moldatu dira ikasleak beren familietan eta asko ikasi dute.

A.N.: Ikasleak gustura ikusten al dituzue eduki duten esperientziarekin?

I.U.: Bai, esan digutenez oso gustura daude gehienak, eta berriro bueltatzeko gogoia omen dute.

A.N.: Gurasoak normalean ados egoten al dira trukaketarekin?

I.U.: Bai, normalki bai. Ikasleek beren frantsesa edo dena delakoa hobetzea dute gustuko eta bidai hauek onak dira helburu hori lortzeko..

DBH 4. FUTUROSCOPErako BIDAIA



Futuroscope parkea

Amaia Olkotz .DBH 4ko FRANTSESEKO IRAKASLEA

“Futuroscopera joateko aukera Kutzaren eskutik sortu zen urria aldean”-esaten digu Amaiak. Zozketaz egokitutako bidaiak ikastolan irakasten den frantsesari bultzada bat eman dio. “**Bai mintegiak, bai zuzendaritzak erabaki zuen frantsesa indartzea, zuzenean praktikatuz nahiz kultura frantsesa bertatik ezagutu.**”-adierazten du.

Bidaia laburra izan arren, hasieratik ezarritako helburuak bete egin dira. “**Denbora askorik ez dugu izan** –azaltzen du Amaiak– **Ostegun batean Donostiatik irten eta larunbat arratsean itzuli. Futuroscopen ostiral osoa egon ginen eta bueltan Poitiers hiria ezagutzeko aukera izan genuen**”

“Esperientzia ona izan da, positiboa. Aukera balego, horrelako bidaiak antolatuko ditugu dudarik gabe”- gaineratu du.

“Ez da betiko atrakzio parkeen modukoa”

Axular News: Nolakoa iruditu zaizue bidaia?

Jon Iruretagoiena eta Ainara Tedone: Oso bidaia polit eta interesgarria izan da. Izan ere ez da beste atrakzio parkeak bezala. Han atrakzio gehienak 3Dko simuladore futuristak dira.

A.N.: Zer ekintza burutu dituzue han?

J.I. eta A.T.: Egunean zehar simuladoreetan ibiltzen ginen eta gauean suarekin eta argiarekin egindako ikuskizunak ikustera joan ginen. Egia esan ez genuen beste gauza askotarako astirik esan.

A.N.: Hizkuntza aldetik ulermen arazorik eduki al duzue?

J.I. eta A.T.: Frantsesekin nahiko ondo ulertu ginen baina beste herrialde batzuetako jendea ere bazegoen eta haiekin ulertzeko arazo gehiago eduki genituen. Hemengo jendea ere bazegoenez horiekin ez genuen arazorik eduki.

A.N.: Zer azpimarratuko zenukete?

J.I. eta A.T.: Niri gehien gustatu zitzaidana “La Vienne dynamique” izan zen. Bertan gizon bat bere ezkontzara garaiz iristeko erabiltzen dituen ibilgailu desberdinen simuladorea da. Niri aldiz musikarekin batera bere besoarekin mugitzen gintuen robotarena gustatu zitzaidan.

A.N.: Laburbilduz, errepikatzeko esperientzia iruditu zaizue?

J.I. eta A.T.: Bai, noski. Guk oso ondo pasa dugu eta berriz ere joango ginateke gustura.

Los alumnos y alumnas de DBH 4 que cursan la asignatura de francés han realizado una excursión a Futuroscope (Francia) acompañados por sus profesoras Amaia Olkotz e Idoia Barrenetxea.

Viaje corto pero intenso en actividades que ha cubierto las expectativas culturales y de esparcimiento fijadas en un principio con la posibilidad de utilizar una lengua ex-

Les élèves de français de DBH 4 ont fait une excursion à Futuroscope (France) accompagnés par leurs professeurs Amaia Olkotz et Idoia Barrenetxea. Le voyage a été court mais intense en activités culturelles. Avec ce voyage ils ont eu la possibilité d’améliorer leur français.

DBH 4 students who look french as an optional subject went to Futuroscope (France) with their teachers Amaia Olkotz and Idoia Barrenetxea. It was a short but intense journey with a lot of cultural activities. This experience gave them the possibility of practising their French.



Ainara Tedone eta Jon Iruretagoiena

ELI eta ENEKO RAMÍREZ.. A.L.-ko IKASLE OHIAK

“Faltan botatzen dugu ikastola”



Eneko eta Eli Ramirez Axularreko ikasle ohiak.

Axular News: Zer dela eta aukeratu zenuen Ingeniaritza?

Eneko Ramirez: Ingenieritza aukeratu nuen lantzen zitzuten gaiak gustukoak nituelako, arreba bertan zegoelako eta behin ingeniaritza amaituta irtenbide ugari duelako.

A.N.: Axular Lizeoan jasotako prestakuntza egokia izan al zen?

Eli Ramírez: Bai, batez ere marrazketan. Ikastolan materia gehiago ikusi nuen eta hori lagungarri suertatu zitzaidan. Beste gai batzuetan ordea, temarioa ez genuen bukatu eta lan handiagoa egin behar izan nuen.

A.N.: Zuen gustukoa da egiten ari zareten bidea?

E.R.: Bai. Niri zientzietako gaiak gustatzen zaizkidalako
El.R.: Bai. Urteak aurrera joan ala gero eta gehiago gustatzen zait.

A.N.: Zer esango zenuke Axular Lizeotik igarotako urteetaz?

E.R.: Momentu oso onak igaro ditut baita txarrak ere, baina zapore onarekin atera naiz
El.R.: Orokorrean une onak igaro ditudala eta oroitzapen horrekin gelditzen naiz, egia esan batzuetan faltan botatzen dut zenbait gauza esate baterako, egiten genituen irteera horiek.

A.N.: Orain Unibertsitatean zaudetela, zer aldaketa nabaritu duzue?

E.R.: Bai, jautzia oso handia izan da. Irakasleekin ditudan erlazioak, ordutegia, ikasten pasatzen ditudan orduak, azterketa eta gaiak dituzten zailtasunak... Ordu dexente sartu behar dira liburuen aurrean.

A.N.: Zenbat ordu ematen diezue ikasgai bakoitzari?

El.R.: Ordu kopurua gaien arabera aldatzen da. Adibidez, Kalkulurako hamar eta Marrazketa Teknikorako bost.

A.N.: Zertan aldatu da zuen ikasteko modua?

Eneko eta Eli Ramirez, 18 eta 20 urteko gazteak, Axular Lizeoko ikasle ohiak dira. Gaur egun, Nafarroako Unibertsitatean Ingeniaritza ikasten ari dira eta ondorengo elkarrizketan ikastola eta unibertsitateko aldeak azalduko dizkigute.

E.L.: Ikastolan ariketak mekanikoki egiten nituen, emandako datuk formulari sartu eta listo, baina orain horrek ez du balio, ariketa bakoitza mundu bat da eta formula jakitearekin ez da nahikoa teoria ondo menderatu behar da.

A.N.: Zer gaitan nabari duzue zailtasun handiena?

E.L.: Egia esan ikasgai guztiek dute bere zailtasuna. Gogoratzen dut nire lehenengo klase eguna. Egund hartan dena ikastolan ikusitakoaren antzerakoa zen, alegia, berrikuspen bat izan zelako Handi aurrera zenbait klase txinoz ematen zutela ziruditen.

A.N.: Unibertsitateko giroa deskribatu.

E.R.: Mota guztietako pertsonak daude, Espainia osotik etorria eta ideologia ezberdinetakoa. Unibertsitateko giroa oso lasaia da, bakoitzak nahi duena egiten du, besteak errespetatuz.

El.R.: Ikastolarekin alderatuz askatasun handiagoa dago, bakoitzak nahi duen bezala antolatzen da, hori bai, jakin behar da antolakuntza hori eramaten. Nire anaiak dioen bezala mota guztietako jendea dago eta horrek ikuspegi desberdinak ikusten laguntzen ditu.

A.N.: Ikasgairan bat ingelesez ematen al duzue?

E.R.: Bai, klasaren bat eman genuen. Ingeles maila oso altua zen eta ulertzeko arazoak izan nituen.

El.R.: Bai, gero eta eskaintza handiagoa daukagu, eta nire usten oso interesgarriak dira, egia esan ingenerio batek ez badaki ingeleza jai dauka.

A.N.: Zein da zuen helburua etorkizun baterako?

E.R.: Oraindik urruti samar ikusten dut bukatzeko eguna. Hasi besterik ez dut egin eta. Denborak lagunduko dit zalantzak ebazten.

E.L.: Egia esan, oraindik ez daukat ideia zehatz bat buruan, agian Antolaketa Ingeniaritzatik jotzen dut edota materialen mundutik. Hori bai, ingeniaritza 5 urtetan bukatu eta lanen astea gustatuko litzaidake, eta ahal bada lehenengo urteetan atzerrian izatea nahiko nuke.

SUDOKU

Bete ezazu sudoku hau.

	6		1	4		5	
		8	3		5	6	
2							1
8			4		7		6
		6				3	
7			9		1		4
5							2
		7	2		6	9	
	4		5		8		7


HIZKI ZOPA

Bilatu ezazu errealako 8 jokalaria.

R	I	E	S	G	O	O	E	T	S
O	I	U	D	K	T	R	M	E	T
N	K	N	R	E	O	P	O	T	E
A	G	C	I	F	U	U	V	T	V
L	D	R	R	H	B	T	B	O	A
D	P	M	U	J	A	K	Z	O	N
H	A	B	J	E	D	T	X	A	O
I	D	T	E	O	L	L	A	C	V
K	A	L	O	N	S	O	M	E	I
J	K	O	V	A	C	E	V	I	C

DIFERENTZIAK


Aurkitu 7 desberdintasunak.



6	4	2	5	9	8	1	7	3
3	1	7	2	4	6	9	8	5
5	8	9	7	1	3	4	6	2
7	3	5	9	6	1	8	2	4
4	9	6	8	5	2	3	1	7
8	2	1	4	3	7	5	9	6
2	5	4	6	8	9	7	3	1
1	7	8	3	2	5	6	4	9
9	6	3	1	7	4	2	5	8



SOLUZIOAK



“*Csango*a gure kultura berpiztea gustatuko litzaiguke. Guretzat balio handia baitu”

Zurgó talde hungariarrak Axular Lizeoko Lehen Hezkuntzako 4. eta 5. mailako ikasleekin dantza-tailer bat antolatu zuen. Bosgarren aldia da Euskal Herrira etorri direla. Moldavian bizi dira eta “csango” izeneko gutxiengo etniko hungariarraren tradiziozko musika eta dantza interpretatzen ditu. Udaberrian Euskal Herrian barrena bira motz bat egin dute. Iruña, Sestao, Gernika Peralta eta Lizarran entzuteko aukera izan dute.



Zurgó taldeko kideak ikastolako umeekin



LEHIAKETAZ LEHIAKETA

Donostiako XVII. Koldo Mitxelena literatur sariak ospatu dira hilabete honetan. Axular Lizeoa tartean egon da zenbait ikaslek beren lanak aurkeztu baitituzte. Ikasle guztietatik hiruk lortu dute aipamen berezia. Mireia Gartzia, Lander Iruin eta Irati Salsamendi izan dira hiru zortedunak. Sari banaketa Kursaaan izango da datorren ekainaren 3an.

MUSEO BATEAN ORAINGOAN

Lehiaketa batekin bukatu eta beste batekin goaz. Oraingoan D.B.H.3ko ikasleek izan dute aukera San Telmo museoak antolatzen zuen lehiaketa batean parte hartzeko. Ikasleek museoko giza eskubideei buruzko erakusketa bat ikusi ondoren gaiari buruzko kartel bat egiteko aukera izan zuten. Saritu ugari egon da gure ikastolan:

Lehenengo eta bigarren sariak: Urki Etxaniz, Laura Narvaez eta Irati Salsamendi.

Hirugarren saria: Joseba Ramirez, Borja Alzuri eta Ioritz Arrieta. Zozketa bat ere antolatu zuten eta irabazleak: Iñigo Narbaiza, Ander Eceiza, Iker Fernandez, Xabier Etxenike, Jon Varona, Maite Garcia, Laura Palomero, Maria Manzaneque eta Naroa Eceiza.



Lehenengo saria irabazi zuen kartela.



Axularreko haur danborrada Laudion

DANBORRADA LAUDION

Arabako San Prudentzio festak zirela eta Laudion izan ziren Axular Lizeoko haur danborradako ikasleak apirilaren 27an. Ikastolatik atera eta arratsaldean iritsi ziren bertara beren errepertorioa jotzeko. Marisa Mendaza, Gasteizko Umandi Ikastolako musikako andereñoa izan zen musika eta Arabako danborradari buruzko azalpenak eman zizkigunak. Guztion artean giro bikaina sortu zuten Erretreta eta gainontzeko ohiko martxak joaz.